– Que no tienen vinculación ni dependencia de las Administraciones Públicas, ni pertenecen a la Administración Institucional.

– Que no se encuentran incursos en ninguna causa de prohibición o inhabilitación a que se refiere el artículo 14 del presente programa.

– Ayudas que para el mismo proyecto hayan sido concedidas y/o solicitadas de otras instituciones públicas o privadas.

3.– En cualquier caso, SPRI, S.A. podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación y/o información complementaria, en relación con este proyecto, considere necesaria para la adecuada tramitación, comprensión y evaluación de la Solicitud de Ayuda presentada.

4.– En caso de falseamiento de datos, SPRI, S.A. procederá a poner en marcha las actuaciones legales a las que hubiera lugar.

**20. artikulua.**– Ebaluatu eta erabakitzekeo prozedura.

1.– Aurkeztutako eskariak ebaluatu eta ebazteko batzorde eragile bat sortuko da: SPRI SAko zuzendari nagusia izango da bertako burua, eta lau mahaikide izango ditu (batek idazkari-lanak egingo ditu).

2.– Proiektuak aztertzekeo, dokumentazio nahikoa dutela erregistratzen diren espedienteak baliatuko dira, eta txosten teknikoaren arabera kapitulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektuak onartuko dira. Onarpen baldintzatua ere egin ahal izango da, baldin eta eskatutako dokumentazioa aurkezten bada 10 egun balioduneko epean, hala ezartzen duen ebazpena jasotzen denetik hasita, betiere, araudiaren arabera.

3.– Ebaluazio-prozesuan, proposamenetan aldatetako egiteko iradoki ahal izango zaie eskatzaileei, proiektuak zehaztutako helburuetara hobeto egokitu daitezten.

4.– Laguntza-eskabideak ebaluatzekeo, organo eskudunak alderdi hauek hartuko ditu aintzat:

a) Programarekiko adostasuna: % 15 (9/15);

b) Lehiakortasuna dinamizatzeko jardueren kalitatea: % 20 (12/20).

c) Emaizten eragina sarean; balorazio hobea izango dute ekoberrikuntza edo/eta ekoeraginkortasuna aintzat hartzen duten jarduerak: % 20 (12/20).

d) Partzuergoaren kalitatea eta gaitasuna: % 15 (9/15).

e) Kudeaketaren kalitatea: % 15 (9/15).

f) Baliabideen egokitzapena: % 15 (9/15).

Ebaluazio-irizpide bakoitzak exijitu daitekeen puntuazio minimoa eta lortu daitekeen puntuazio maximoa dauzka. Puntuazioa lortzeko, irizpide bakoitzarentzat definitu diren alderdiak betetzen diren ala ez begiratu da. Exijitzen den puntuazio minimoa gainditzen ez duten proposamenak baztertu egingo dira.

Aurreikusitako jardueren programa egokia dela egiaztatzea «Compite-Iniciativas» programaren helburuak lortzeko a) ebaluazio-irizpidea baztertzaila da. Programaren jarduera-eremutik kanpo dauden proposamenak ez dira onartuko.

Gutxienekeo puntuazio globala gainditzen ez duten proposamenak, hau da, 100etik 60 puntu, baztertu egingo dira.

Hala ere, SPRI SAk emandako zenbatekoa modulatua ahal izango du araudi honen 18. artikuluan azaldutako laguntzaren mugarekin; horretarako, kontuan hartuko ditu proposamenaren tamaina eta eremu geografikoaren, sektorearen edo jardueraren jomuga izango den enpresa-taldearen tamaina erlatiboa.

**Artículo 20.**– Procedimiento de evaluación y decisión.

1.– Para la evaluación y resolución de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión Ejecutiva compuesta por el Director General de SPRI, S.A. como Presidente y cuatro vocales, uno de los cuales ejercerá como secretario.

2.– El estudio de los proyectos se realizará sobre los expedientes que se vayan registrando que tengan la documentación suficiente, aprobándose aquéllos que según el informe técnico cumplan las condiciones establecidas en este capítulo. Podrá hacerse una aprobación condicionada a la presencia de la documentación exigible, según la normativa, en un plazo de 10 días hábiles desde la recepción de la resolución que así lo establezca.

3.– Durante el proceso de evaluación se podrá sugerir a los solicitantes la introducción de modificaciones en las propuestas para conseguir una mejor adaptación de las mismas a los objetivos establecidos.

4.– El órgano competente para la evaluación de las solicitudes de ayuda tendrá en cuenta los siguientes aspectos:

a) Conformidad con el programa. 15% (9/15).

b) Calidad de las Actividades de Dinamización de Competitividad 20% (12/20).

c) Impacto de los resultados en el tejido, siendo más valorados aquellos en que se aprecien ecoinnovación y/o ecoeficiencia 20% (12/20).

d) Calidad y capacidad del consorcio 15% (9/15).

e) Calidad de la gestión 15% (9/15).

f) Adecuación de los recursos 15% (9/15).

Cada criterio de evaluación tiene una puntuación mínima exigible y una puntuación máxima alcanzable. La puntuación se obtiene en función del grado de cumplimiento de los aspectos que se han definido para cada criterio. Propuestas que no superen la puntuación mínima exigible en alguno de los criterios serán rechazadas.

El criterio de evaluación a) Justificación de la idoneidad del Programa de actuaciones previsto para la consecución de los objetivos del Programa Compite-Iniciativas es excluyente, propuestas que estén claramente fuera del ámbito de actuación del programa, serán rechazadas.

Propuestas que no superen la puntuación global mínima exigible 60 puntos sobre 100 serán rechazadas.

No obstante, SPRI, S.A. podrá modular el importe concedido con el límite de ayuda expuesto en el artículo 18 de la presente normativa, en función de la envergadura de la propuesta y la dimensión relativa del área geográfica, sectorial o del colectivo empresarial objetivo de la actuación de la entidad solicitante.

5.– SPRI SAko Enpresa Eraldaketarako Departamentuak jakinaraziko du eskatutako diru-laguntza onetsi edo ezetsi den.

6.– Eskaera onartu dela jakinarazten denean, diru-laguntzaren zenbatekoa, proiektua burutzeko baldintzak eta epeak zehaztuko dira, bai eta proiektua garatzeko behar den beste edozein baldintza ere.

7.– Ebazpena emateko gehienezko epea bi hilekoa izango da, SPRI SAri espedienteaz aztertzeko beharrezko dokumentazio guztia ematen zaionetik aurrera kontatzen hasita.

**21. artikulua.**– Laguntza likidatu eta ordaintzeko eskabidea.

1.– Proiektua amaitutakoan, eta hura justifikatzeko, diruz lagundutako jarduerak burutu izana eta jarritako helburuak zenbateraino lortu diren frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte erakunde onuradunek. Proiektua amaitu ondoko lehenengo hiruhilekoan aurkeztu behar den dokumentazioa honako hau da:

1.1.– Lehenengo eta behin, ondoko helbide elektronikotako aplikazio informatikoaren funtzionalitateak baliatuta, <https://www.spri.es/compite>, bertan honako dokumentu hauek erantsiko dira:

– Memoria tekniko bat; nolahi ere, eskaera egiteko, laburpen exekutibo bat bete beharko da.

– Behin betiko fakturak bat etorri behar dira eskaera egiteko bete beharreko faktura-koadroan zehaztatutakoekin.

– Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuko gastuak ordaindu izanaren bankuko frogagiriaren kopia.

– Ziurtagiri eguneratuak (ziurtagiriaren datak likidazio-eskabidearen aurkezpen-data baino hiru hilabete lehenagokoa izan behar du gehienez ere), eragiten dioten administrazioekiko eta Gizarte Segurantzarekiko tributu-betebeharrak betetzeari dagokionez enpresa egunean dagoela ziurtatzen dutenak.

– Finantza-erakundearen ziurtagiriaren kopia, banku-kontuaren titulartasuna enpresa onuradunaren izenari dagokiola egiaztatzen duena (enpresak kontua aldatu badu, hau da, eskabidean agertzen dena ez bada).

1.2.– Behin aurreko guztia beteta, bide informatikoz bidaliko da eskaera eta, ondoren, 10 egun baliouduneko epean, ondoko dokumentua sinatu eta igorriko da:

– Likidazio-eskaera/ziurtagiri ekonomiko bat; horretarako, aipatu helbideetan SPRI SAK horretarako prestatutako aplikazio informatikoa erabiliko dute interesatuek.

5.– Corresponderá al Departamento de Transformación Empresarial de SPRI, S.A. notificar la aprobación o denegación de la ayuda solicitada.

6.– La comunicación de la aprobación indicará la cuantía de la subvención que se concede, las condiciones y los plazos para la realización del proyecto, así como cualquier otra condición que sea necesaria para el desarrollo del mismo.

7.– El plazo máximo para el dictado de la resolución será de dos meses, a contar desde la fecha en que se haya entregado en SPRI, S.A. la documentación suficiente para el análisis del expediente.

**Artículo 21.**– Solicitud de Liquidación y pago de la ayuda.

1.– Una vez finalizado el proyecto, y para la justificación del mismo, las entidades beneficiarias deberán presentar la documentación justificativa que permita comprobar tanto la realización de las actividades subvencionadas, como el grado de consecución de los objetivos por ellas perseguidos. Esta presentación documental, que deberá realizarse durante el primer trimestre siguiente al momento del fin del proyecto, consistirá en:

1.1.– En primer lugar, aprovechando las funcionalidades de la aplicación informática de la dirección <https://www.spri.es/compite>, se adjuntarán a la misma:

– Una memoria técnica, aunque un resumen ejecutivo se deberá rellenar para realizar la solicitud.

– Las facturas definitivas que tendrán que corresponderse con las especificadas en el cuadro de facturas que debe rellenarse para realizar la solicitud.

– Copia de los justificantes bancarios de pago de los gastos subvencionables del proyecto.

– Certificados actualizados (cuya fecha no preceda en mas de un mes la fecha de presentación de la solicitud de liquidación) que acrediten que la empresa se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales en las administraciones que le afecten y para con la Seguridad Social.

– Copia del certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad de la cuenta bancaria a nombre de la empresa beneficiaria (si la empresa ha cambiado dicha cuenta respecto a lo aportado en la solicitud).

1.2.– Una vez realizado lo anterior, se enviará informáticamente y posteriormente, en un plazo de 10 días hábiles, firmado, el siguiente documento:

– Una solicitud de liquidación-certificado económico debiendo utilizar los interesados la aplicación informática que SPRI, S.A. habilitará para tal efecto en las direcciones mencionadas.

Eskaerak web helbide horretako funtzionaltasunen bitartez igorri ondoren, eskaerak inprimatu eta sinaturik igorri beharko dituzte SPRI SArean helbidera (Urkixo zumarkalea, 36-4. solairua. Bizkaia Plaza Eraikina, 48011 Bilbao), 10 egun balioduneko epean.

Bestalde, laguntzak ordaindu aurretik, SPRI SAK beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahal izango dio enpresari.

2.- Ordaintzeko modua. Oro har, emandako laguntzaren % 25 laguntza-eskabidea onartu den unean ordainduko da, ezar daitekeen berme-araubideari jarraituz, eta gainerakoa ordainketa bakarrean emango da, proiektua amaitutakoan, eta aurreko atalean azaldu dugun likidazio-eskabidea eta justifikatzeko agiriak behar bezala aurkeztu ondoren.

Hala ere, laguntza emateko ebazpenean ordainketa aurreratuak egiteko aukera aipatu ahal izango da, bai eta horrelakoetan bitarteko eragile onuradunak zer nolako berme-araubidea bete beharko duen ere.

3.- Diruz lagundutako gastua batzorde betearazleak laguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontua baino txikiagoa bada, diru-laguntza doitu egingo da proportzioan.

4.- Laguntzak ordaindu aurretik, SPRI SAK beharrezkotzat jotzen duen bestelako dokumentazio eta informazio oro eskatu ahal izango dio erakunde eskaerazaleari, diruz lagunduko den proiektuaren inguruan.

5.- SPRI SAK 60 eguneko epean ordainduko du diru-laguntza, enpresak likidazio-eskabidean azaldutako agiri guztiak aurkezten dituenetik hasita.

## II. TITULUA

### I. KAPITULUA XEDAPEN KOMUNAK

**22. artikulua.**– Laguntzen metaketa eta mugak.

1.- 1988/2006 Erregelamenduan (edo horren ordezkioan) ezarritako gehienezko muga ez bada gainditzen, laguntza hauek eman ahal izango dira; eta, halaber, kasua bada, Europako Batzordeak baimendutako estatu-laguntzen araubidean, minimis laguntzak emateko ezarritako gehienezko muga gainditzen ez bada.

2.- Proiektu bati emandako laguntzen eta diru-laguntzen zenbatekoa, banaka hartuta nahiz beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin batera, edota xede berbererako erabilitako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekkin batera hartuta, ezin da

Después de enviar el mismo, mediante las funcionalidades ubicadas en dicha dirección web, deberán imprimirlas y remitirlas firmadas a la dirección de SPRI, S.A. (Alda. Urquijo, 36-4.ª-Edif. Plaza Bizkaia, 48011 Bilbao) en un plazo de 10 días hábiles.

Asimismo, SPRI, S.A. antes del abono de las ayudas, podrá requerir a la empresa toda aquella otra documentación adicional que estime precisa.

2.- Forma de pago. No obstante lo anterior, el 25% de la ayuda concedida será pagada en el momento de la aprobación de la Solicitud de Ayuda, con el régimen de garantías que resulte de aplicación, y el resto, mediante un único pago, al final del proyecto tras la oportuna presentación de la Solicitud de Liquidación y documentación justificativa exigida en el apartado anterior.

No obstante, la resolución de concesión de la ayuda podrá prever la posibilidad de efectuar anticipos de pago adicionales sobre la subvención concedida, así como el régimen de garantías que, en este caso, deberá aportar el Agente Intermedio beneficiario.

3.- En el supuesto de que el gasto subvencionable realizado sea inferior al presupuesto aprobado por la Comisión Ejecutiva en la resolución de concesión de la ayuda, la subvención se ajustará proporcionalmente.

4.- Antes del abono de las ayudas, SPRI, S.A., podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación e información adicional estime oportuna en relación con el proyecto subvencionado.

5.- SPRI, S.A. procederá al pago de la subvención concedida en un plazo máximo de 60 días a partir de la presentación por parte de la empresa de todos los documentos exigidos en la Solicitud de Liquidación.

## TÍTULO II

### CAPÍTULO I DISPOSICIONES COMUNES

**Artículo 22.**– Acumulación y límites de las ayudas.

1.- Se podrán conceder estas ayudas en tanto no se exceda del límite máximo establecido en el Reglamento 1988/2006 (o cualquier otro que lo sustituya) o, en el caso en que resulte de aplicación, del límite máximo establecido para la concesión de ayudas de minimis en un régimen de ayudas de Estado autorizado por la Comisión Europea.

2.- El importe de las ayudas y subvenciones concedidas al mismo proyecto en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, con cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma fina-

izan onuradunak burutu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa edo laguntzaren xedearen kostua baino handiagoa, eta onuradunak laguntza edo diru-laguntza horien berri eman behar dio SPRI SARI nahitaez.

Muga hori edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaintuz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programa honen arabera emandako zenbatekotik.

3.- Proiektuotan ezin izango da jaso lehia murrizteko praktikarik, Europar Batasunaren Funtzionamendu Ituneko 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoa betez.

**23. artikulua.**– Laguntza- edo likidazio-eskaeren onarpena eta zuzenketa.

1.– Laguntza-eskabidea puntu guztietan behar bezala beteta ez badago, edo kapitulu honetan eskatutako dokumentazio osoa aurkezten ez bada, 10 egun baliouduneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko eskatuko zaio enpresaren legezko ordezkariari, eta bestalde, ohartaraziko zaio hala egin ezean enpresak eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, SPRI SAko Enpresa Eraldaketarako Departamentuak horixe adierazteko ebazpena eman ondoren, eta horixe jakinaraziko zaiola erakunde eskatzaileari.

2.– Proiektuek laguntza-deialdiaren ekitaldi naturalean hasi beharko dira eta laguntza-eskabidean jasota dagoen proiektuen hasiera-datatik hasita hamabi hilabeteko epean amaitu beharko dute beranduenez, edo eskaria aurkezten den datatik, epe hori txikiagoa bada. Laguntza-eskaria aurkeztu ondoren hasi beharko da proiektuak gauzatzeko. Eskarretan ezingo da aurreko ekitaldietan egindako gasturik aurkeztu, salbu eta araudi honetako 10.9 artikuluan ezarritako inguruabarra.

**24. artikulua.**– Onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek betekizun hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hartara, laguntza esleitu izanaren jakinarazpena jasotzen denetik 15 eguneko epean erakunde onuradunak espresuki horri uko egin ezean, laguntza onartu duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza jarduera jakin batzuetarako eman da eta horietarako bakarrik erabili behar da.

c) Proiektuan parte hartzen duen enpresak edo enpresa-taldeak gutxienez proiektuko gastu osoaren % 25 ordainduko duela bermatzea. Gutxieneko ekarpen hori ez zaie ezarriko bitarteko eragileei.

lidad, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria o de la finalidad para la que se concedió la ayuda, estando obligado a comunicar las mismas a SPRI, S.A.

En caso de superarse dicho límite, u otros que establezca este Programa, la ayuda concedida en virtud de este Programa se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

3.– Los proyectos no podrán contemplar en ningún caso prácticas restrictivas de la competencia, cumpliendo así con lo dispuesto en los artículos 101 y 102 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE).

**Artículo 23.**– Admisión y subsanación de las solicitudes de ayuda y/o liquidación.

1.– En el caso de que la Solicitud de Ayuda no viniera cumplimentada en todos sus términos o no fuera acompañada del resto de la documentación exigida en el presente capítulo, se requerirá al representante legal de la empresa, para que, en un plazo máximo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa declaración en tal sentido del Departamento de Transformación Empresarial de SPRI, S.A., comunicándose tal circunstancia a la entidad solicitante.

2.– Los proyectos deberán iniciarse en el ejercicio natural de la convocatoria de la ayuda y finalizar en un plazo máximo de doce meses contado desde la fecha de comienzo de los mismos recogida en la solicitud de ayuda o desde la fecha de presentación de la solicitud, si ésta es menor. Los proyectos deberán comenzar con posterioridad a la presentación de la solicitud de ayuda. En las solicitudes no podrán incluirse gastos realizados en ejercicios anteriores, con excepción del supuesto contemplado en el artículo 10.9 de la presente normativa.

**Artículo 24.**– Obligaciones de los beneficiarios.

Las entidades beneficiarias están obligadas a:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la ayuda, la entidad beneficiaria no renuncia expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el desarrollo de las actividades para las que ha sido concedida.

c) Garantizar una contribución propia de la empresa o de las empresas participantes en el proyecto de, al menos, un 25% de los gastos globales del proyecto. Esta aportación mínima no será de aplicación a los Agentes Intermedios.

d) SPRI SAri emandako laguntzen inguruan beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko aukera eman behar zaio, eta horretarako, onuradunei eskatzen dien informazio osagarri guztia eman behar zaio.

e) Behin betiko fakturak –osatuak– artxibatu eta SPRI SAren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskura jarri behar dituzte bost urtez.

f) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatzen duten informazio guztia ematea, betiere laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-eginkizunen jardunean ari badira.

g) Espedientea izapidetzeko prozesuan zehar, edozein unetan, xede berbererako edo antzekoetarako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo haiengandik jasotako laguntzen eta diru-laguntzen, edota beste edozein diru-sarrera edo baliabideren berri eman behar zaio SPRI SAri.

h) Proiektua ebaluatzerakoan SPRI SAk aintzat hartu duen edozein alderdi aldatu bada, jakinarazi egin behar zaio.

**25. artikulua.**– Laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntzak emateko baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada eta, edozein kasutan, xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik laguntzak edo diru-laguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide jaso bada, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere programa honetan ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira.

2.– Halaber, laguntzak onartu zituen organoak lupapen bat eman dezake jarduerak gauzatzeko, baldin eta erakunde onuradunek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute, eta hala izanez gero, laguntzaren ordainketa ere atzeratu egin daiteke, emandako arrazoiek hori justifikatzen badute.

3.– Jarduerak, ezinbestean, laguntza-eskaera egindakoan aurkeztutako memorian jasotakoak izan behar dute; hala ere, Enpresa Eraldaketako Departamentuak berauetan aldaketak egiteko baimena eman dezake, baldin eta alde aurretik erakunde onuradunak departamentu horri aldaketa horiek egitea eskatu badio, erakunde onuradunak jarduerak amaitu aurretik aldaketak erabat justifikatzen baditu eta hasieran ezarritako ezaugarri eta helburuak aldatzen ez badira.

**26. artikulua.**– Ez-betetzeak.

1.– Ikusiko balitz diru-laguntzaren onuradunek ez dutela araudi honetan, kasu honetan ezar daitezkeen gainerako araudietan edo laguntzen ebazpenean bertan ezarritako baldintzetakoren bat bete, emandako

d) Facilitar a SPRI, S.A. la realización de las comprobaciones que estime oportunas en relación con las ayudas concedidas, debiendo aportar los beneficiarios cuanta información complementaria les sea solicitada.

e) Archivar las facturas completas y ponerlas a disposición de SPRI, S.A. y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante un periodo de cinco años.

f) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

g) Comunicar a SPRI, S.A. la solicitud u obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma o similar finalidad, procedente de cualquier otra Administración o ente tanto público como privado, en cualquier momento de la tramitación del expediente.

h) Notificar a SPRI, S.A. la modificación de cualquier circunstancia que ésta hubiese tenido en cuenta para la evaluación del proyecto.

**Artículo 25.**– Modificación de las ayudas.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de la ayuda, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en el presente Programa.

2.– Asimismo, previa solicitud y justificación por parte de las entidades beneficiarias, se podrá conceder, por el órgano que aprobó las ayudas, un aplazamiento en la ejecución de las actividades a realizar, que podrá conllevar un retraso en el pago de la ayuda que corresponda, siempre que las razones alegadas así lo justifiquen.

3.– Las actuaciones comprenderán necesariamente las contempladas en la memoria aportada en el momento de la Solicitud de Ayuda, pudiendo autorizarse cambios en las mismas por parte del Departamento de Transformación Empresarial, siempre que hayan sido previamente solicitadas a la misma, y plenamente justificadas por la entidad beneficiaria con anterioridad a su finalización, siempre que no se desvirtúe su naturaleza y objetivos perseguidos inicialmente.

**Artículo 26.**– Incumplimientos.

1.– En el supuesto de que las entidades beneficiarias incumplieran los requisitos establecidos en la presente normativa y demás normas que le son de aplicación, así como las condiciones que, en su ca-

laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute eta SPRI SAri itzuli beharko dizkiote ordura arte kobratu dituzten diru kopuruak, dagozkien legezko interesak gehituta, eta hala badagokio, behar diren legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzulazteko.

2.– Gauza bera gertatuko da aholkularitza-enpresekin eta «Compite» programako proiektuetan parte hartzen duten profesionalekin; are gehiago, horiei programa honetara aurrerantzean beste proiektu batzuk aurkeztea eragotzi ahal izango zaie, eta hori hala bada, behar bezala iragarriko da, eta gutxienez, lagundu nahi duten enpresari, hots, laguntza-eskatzaileari jakinaraziko zaio.

3.– Edozein kasutan ere, artikulua honetan aurreikusitakoaren ondoretarako, hauek jotzen dira ez betetzat:

a) Diruz lagundu beharreko gastuak ez justifikatzea edo laguntza emateko ebazpenean eskatzen diren baldintzak ez betetzea.

b) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

c) Proiektua beste edozertan desbideratzea edo laguntza emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

4.– SPRI SAko Enpresa Eraldaketako Departamentuaren eskumena da ez betetze hori egiaztatzeko prozesua abiaraztea eta ebaztea.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**– Sinadura digitala duen tramite-prozedura telematikoa bat garatzen bada, programa honetan bildutako laguntzak prozedura horren arabera tramitatu beharko dira. Prozedura hori behar bezala jakinarazi beharko da SPRI SAren ondoko web helbideetan: <https://www.spri.es/compite>

**Bigarrena.**– Laguntza-programa honetan aurkeztutako proiektua programan ezarritako esparruan ez dela sartzen erabakitzen bada, Ebaluazio Organoak ofizioz bideratu ahal izango du Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren eremuan dauden bestelako laguntza tresna edo programa batzuetara.

**Hirugarrena.**– Programako 6. artikulua aipatzen duen Kanpo Aholkularien Erregistroa erabat martxan egon arte, SPRI SAk baliozkotuko ditu kanpo-aholkulariak, hots, eskatutako laguntzak helburu duen lehiakortasun-hobekuntzaren alorrean nahikoa gaitasun eta lan-eskarmentu dutela egiaztatzen dutenak,

so, se establezcan en la resolución de concesión de las ayudas, perderán el derecho a la ayuda otorgada, adquiriendo la obligación de reintegrar a SPRI, S.A. las ayudas que hubieran percibido hasta ese momento, más los correspondientes intereses legales que correspondan, procediéndose, en su caso, a poner en marcha las actuaciones legales a las que hubiera lugar para conseguir su reintegro.

2.– Lo mismo sucederá respecto de las empresas de consultoría y de los profesionales involucrados en los proyectos Compite, a los cuales incluso se les podrá impedir presentar nuevos proyectos al presente Programa, y de lo cual se dará la oportuna publicidad, al menos a aquella empresa solicitante de la ayuda a la que pretendan acompañar.

3.– En todo caso se considerará incumplimiento a los efectos de lo previsto en este artículo:

a) La no justificación de los gastos subvencionables o el incumplimiento de los requisitos exigidos en la resolución de concesión de la ayuda.

b) Sobrepassar los plazos establecidos para la realización del proyecto subvencionado, siempre que no medie autorización de modificación o de prórroga.

c) Cualquier otra desviación del proyecto o el incumplimiento de cualquier otra obligación que se disponga en la resolución de concesión de la ayuda.

4.– La puesta en marcha de la comprobación del incumplimiento, así como su resolución, corresponderá al Departamento de Transformación Empresarial de SPRI, S.A.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**– En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática con firma digital, las ayudas contempladas en el presente Programa deberán tramitarse de acuerdo con el mismo. Dicha circunstancia deberá ser debidamente publicitada por SPRI, S.A. en la siguiente dirección web: <https://www.spri.es/compite>

**Segunda.**– Si del análisis del proyecto presentado al presente Programa de ayudas, se concluyera que no es elegible en el marco de lo establecido en el mismo, el Órgano de Evaluación podrá reorientarlo de oficio hacia otros instrumentos o Programas de ayuda existentes en el ámbito del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

**Tercera.**– Hasta tanto el Registro de Asesores Externos al que se hace referencia en el artículo 6 del Programa, no se encuentre totalmente operativo, SPRI, S.A. validará a aquéllos Asesores Externos que acrediten tener capacitación y experiencia profesional bastante en el ámbito de la mejora competitiva obje-

eman behar duten laguntza emateko behar bezain beste gaitasun dutela frogatzeko.

Horretarako, kasu bakoitzak eskatzen duen alorrean gutxienez 5 urtetik gorako lan-eskarmetua dutela frogatu beharko dute.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, SPRI SAK diseinatu eta/edo kudeatu dituen laguntzen/diru-laguntzen espedienteak kudeatzeko, SPRI SAREN ardurapeko «Laguntzak» fitxategian edo SPRI SAn parte hartzen eta/edo kolaboratzen duten profesionalen informazioa kudeatzeko «Aholkulariak» fitxategian sartuko dira eskatzaileak ematen dituen datu pertsonalak (SPRI SA, Urkixo zumarkalea 36, -4.a, Bizkaia Plaza Eraikina, 49011 Bilbao). Informazio hori enpresa kolaboratzaileei, arlo horretan eskumena duen administrazio publikoari eta SPRI taldeko enpresei eman ahal izango zaie hala behar izanez gero. Gogorarazten dizuegu datu hauek eskuratzeko aukera duzuela, eta hala behar izanez gero, datuok eskatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo baliogabetzeko, aipatu legean xedatzen den moduan. Horretarako idatzizko komunikazioa helarazi beharko zaio SPRI SAKo Segurtasuneko arduradunei lopd@spri.es helbidera.

**Bigarrena.**– Emandako laguntzek zabalkunde egokia izango dutela bermatze aldera, enpresa onuradunen zerrenda SPRI SARI hala eskatzen dioten interesdunen eskura egongo da. SPRIk ematen duen onuradunen zerrenda isilpekoak ez diren alderdietara mugatuko da.

**Hirugarrena.**– Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden puntuetan eta sozietate publikoei aplikatzen diren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa beteko da.

**Laugarrena.**– SPRI SAREN erabakia merkataritza-izaerakoa da eta jurisdikzio-eskumena epaile eta epaitegi zibilena da. Enpresa onuradunak, eduki dezaketen edozein eskumeni formalki uko eginez, diru-laguntzen programa hau interpretatu edo gauzatzera-koan sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio konpontzeko, Bilboko Justizia Auzitegien esanetara jartzen dira espresuki, horiek baitira gai horietan eskuduntza dutenak.

Bilbao, 2010eko abenduaren 14a.

Zuzendari nagusia,  
TOMÁS ORBEA CELAYA.

to de la ayuda solicitada, de forma que demuestren tener la capacidad necesaria para afrontar con éxito la asistencia requerida.

A tal fin deberán acreditar poseer una experiencia profesional mínima de 5 años en el ámbito concreto requerido.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– De conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, les informamos que los datos personales aportados por el solicitante se incorporarán al fichero «Ayudas», para gestionar los expedientes de ayudas/subvenciones diseñados y/o gestionados desde SPRI, S.A. o bien al fichero «Consultores» para gestionar la información de los profesionales que participan y/o colaboran con SPRI, S.A. en la prestación de sus servicios y ayudas, de ambos ficheros es responsable SPRI, S.A., con domicilio en Alameda Urquijo 36-4.º Edificio Plaza Bizkaia 48011 Bilbao. Dicha información podrá ser facilitada a empresas colaboradoras, Administración Pública con competencia en la materia y empresas del grupo SPRI si fuera necesario. Les recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada, dirigiendo una comunicación escrita a los Responsables de Seguridad de SPRI, S.A. a lopd@spri.es .

**Segunda.**– A efectos de garantizar la adecuada publicidad de las subvenciones concedidas, la relación de subvenciones otorgadas estará a disposición de los interesados que así lo soliciten en SPRI, S.A. La difusión por parte de SPRI, S.A. de la relación de beneficiarios se limitará a aspectos no confidenciales.

**Tercera.**– En todo lo no previsto en estas bases, se estará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en lo que resulte de aplicación a las Sociedades Públicas.

**Cuarta.**– La decisión de SPRI, S.A. es de naturaleza mercantil y la competencia jurisdiccional es de los jueces y tribunales civiles. Las empresas beneficiarias, con renuncia formal a cualquier fuero que pudiera corresponderles, se someten de manera expresa, para la resolución de todo litigio, discrepancia, cuestión o reclamación que pudiera suscitarse, directa o indirectamente, respecto de la interpretación o ejecución del presente programa de ayudas, a los Tribunales de Justicia de Bilbao, competentes al efecto.

En Bilbao, a 14 de diciembre de 2010.

El Director General,  
TOMÁS ORBEA CELAYA.